

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

## Eraztun beltza

**G**erora urtero egingo zuten bezala, uda hartan lehenengoz ekarri zuten Tinduf-eko kanpamentuetatik. Egun batez, hemengo hurrek bizikletaz txango bat egitea erabaki zuten, baina ez zitzaien bururatzen ere egin neskatilak ibiltzen jakingo ote zuten. Alabaina, hark ez zuten halakorik aipatu, eta denak garajetik irten zirelarik, berak atea itxi, eta puska batean geratu zen barnean. Noizbait ere, dingili-dongolo irten zen, hainbat urratu gorputzean, baina bizikleta gainean... Lagunak egun hartan jabetu ziren sahararraren izaera isil bezain irmoaz.

*Geroa gurea da* izenburua du Ibarretxeren memoria liburuak, baina ez dut uste pasadizo hau jasoa izango duenik, nahiz eta berak kontatua izan. Egun batez, bi idazle espainiar eta EAJko parlamentari batekin agertu gintzaizkion, Sahararako bibliobus bat –ibilgailua– eskatzeko. Idazleak etsiturik zetozen hainbat aldaba jo ostean –Kultura eta Atzerri Ministerioak, Cervantes Institutua...–, eta, ordubeteko solasaldi mamitsua amaitutakoan, harriturik irten ziren gaztelaniazko liburuak garraiatuko zituen bibliobusa zeinek eta Jaurlaritzak bideratuko zuelakoan.

Hori guztia Marokoko Gobernuak Aaiunen erakutsitako doilorkeriak ekarri dit gogora, eta bide batez Mohamed Xukri zena oroitarazi. Idazle marokorra *Mila abots eta bat gehiago* elkarrizketa liburuan honela mintzo zen: “Rif-en gosete ikaragarri batek joak bizi ginen: jende asko hil zen. Nire bizilagun batzuk, jatekorik ezin lortu, eta etxean inmolatu ziren, ateak eta leihoak barne-tik hesituz. Bakarren batek noizbait ere sartzea lortu zuenerako, hilik zeuden. Gure aitak nire anaia hil zuen, gau eta egun negarrez aritzen zelako, hari emateko ezer eduki ez eta, nahigabeturik, amorrazioaldi batean lepotik heldu zion... Ongi heldu ere, bi egunen buruan hil baitzen. Harrezkero gorrotatu egin nuen aita”.



DANI BLANCO



Amin Maalouf idazleak esan berri du mundu arabiarak, bizi duen


egoera nahasgarriaren erruz, gaur egun ez duela zer eskainirik.

Ulertzen dut, baina ez nago ados.

Eta horretaz jabetzeko Mohamed

Xukriren obra irakurtzea

baino ez dugu



irudia:

Antton Olariaga

Iruditzen baitzait Marokoko Gobernuak, Espainiaren utzikeria lagun eta Saharako aberastasunak helburu, nolabait ere inmolatu nahi duela bertako populazioa.

Amin Maalouf idazleak esan berri du mundu arabiarak, bizi duen egoera nahasgarriaren erruz, gaur egun ez duela zer eskainirik. Ulertzen dut –nik neuk ere

behin baino gehiagotan izan dut sentipen horixe gurearekiko–, baina ez nago ados. Eta horretaz jabetzeko Mohamed Xukriren obra irakurtzea baino ez dugu. Giro soziopolitiko negargarria gorabehera, lehenengoz haren *Ogi butsa* euskaraz irakurri ahal izango dugu, baina ez edonola, Arantzazu Royok zuzenean arabieratik euskarara itzuli baitigu Igela argitaletxean (*Erlea* aldizkariaren azken alean ere agertu zaigu idazleari buruzko hainbat kontu Iturralde eta Elustondoren bitartez). Autobiografikotik asko duen liburua Marokon zentsuratua izan zen arren, Xukrik zioen herrialde horretan Algerian, Iraken edo Egipton baino askatasun handiagoa zegoela –eta integristmoa kontrolatuagoa, bestela bera aspaldian hila baitzuten–; eta liburua Juan Goytisoloren aitzinsolasarekin argitaratu zen gaztelaniaz, eta nortzuek eta Tahar Ben Jelloun-ek eta Paul Bowles-ek itzuli zuten frantsesera eta ingelesera.

Gogoan dut Ibarretxe lehendakari ohiak bere eraztun beltza erakutsi zigula, eta nola esan zigun neskatila sahararren oparia zela, eta nazioarteko bileretan oroitarazi egiten ziola, gaia edozein zela ere, oraina bera ukatua zaion Saharako auzia hizpidera ekarri beharra (Gonzalezi buruzkoak esan zituenak liburuan egongo al dira?). Eta, halaber, ezin gogotik kendu laster oraingo Jaurlaritzarekin egin beharreko bilera, izan ere bibliobus tikiago bat bidaltzeko asmoa baitugu. Eta neure buruari galdera egiten diot, ea nork hartuko gaituen, ea eraztun beltzaren aztarrenik sumatuko ote dugun, ea geroa norena den. ■